

SARTZEKO BALDINTZAK

Baldintza hauek **guztiak** bete behar dira:

- Hamabost urte beteak izatea, edo dagokion urte naturalaren barruan betetzea.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren ikasturtea edo, salbuespen gisa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ikasturtea eginda izatea.
- Irakasle-taldeak gurasoei edo legezko ordezkariari Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat hastea proposatu izana.

2.- Hiru urterako prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloak, hezkuntza-premia bereziak dituzten eta aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen dituzten ikasleentzat:

- Hezkuntza Saileko Hezkuntza Laguntzako Premia Bereziak (HLPB) dituztenen Erregistroan sartuta egotea.
- Gutxienez, DBHko 2. maila egin izana.
- Tutorearen orientazio-aholkua ikasleak 3 urteko ibilbideko Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat egin dezala izatea, betiere irakasleek proposatu eta orientatzaileek babestu badute aholku hori.

3.- Hiru urterako prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloak, izena ematen duten urte naturalean 17 urte edo gehiago beteta izanik baldintza hauek guztiak ere betetzen dituztenentzat:

- 17 urte edo gehiago izatea.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin ez izana.

KUOTAK ETA ONARPEN-LEHENTASUNAK

Heziketa-Ziklo bakoitzean eskaintzen den guztizko plaza kopuruaren % 10 eskaera egiten den datan % 33 edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonentzat erreserbatu beharko da eta beste % 5, eskaeraren egunean goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari diren pertsonentzat, betiere Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan eta Goi-mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Honako hauek dira kolektiboak:

- a. DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasketa arruntak egin dituzten ikasleak edo curriculum aniztasunaren bidez ikasi dutenak, inskripzioaren urte naturalean 17 urte badituzte eta inskripzio-unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, ezinbestekoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken eskolatutako ikasturtea EAEn egin izana.
- b. DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasketak egin dituzten ikasleak, inskripzioaren urte naturalean 16 urte badituzte eta inskripzio-unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, ezinbestekoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken eskolatutako ikasturtea EAEn egin izana.
- c. DBHko 3. mailara arte ikasketak egin dituzten ikasleak, inskripzioaren urte naturalean 15 urte badituzte eta inskripzio-unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, ezinbestekoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken eskolatutako ikasturtea EAEn egin izana.
- d. DBHko 2. mailara arte ikasketak egin dituzten ikasleak, inskripzioaren urte naturalean 16 urte badituzte eta inskripzio-unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, ezinbestekoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken eskolatutako ikasturtea EAEn egin izana.
- e. DBHko 2. mailara arte ikasketak egin dituzten ikasleak, inskripzioaren urte naturalean 15 urte badituzte eta inskripzio-unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, ezinbestekoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken eskolatutako ikasturtea EAEn egin izana.
- f. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken kurtsoa EAEn egin ez duten ikasleak a)-tik e)-ra ezarritako lehentasun berarekin.
- g. **17 urtetik gorako ikasleak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren kurtsoa egin dutenak edo, salbuespenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren kurtsoa egin**

dutenak; betiere, irakasle-taldeak proposatu badie ikasleen familiei edo legezko tutoreei Oinarrizko Lanbide Heziketaren ziklo batean sar daitezten.

- h. **Aurreko kolektiboetan jasota ez dauden eskatzaileak, baldin eta egiaztatzen badute 17 urte edo gehiago dutela inskripzioaren urte naturalean.**

Kolektibo bakoitzean lehentasun-hurrenkera ezartzeko, aintzat hartuko da historia akademikoaren batez besteko nota onena, I. eranskineko seigarren jarraibidean adierazten den moduan kalkulatua.

Hala ere, h) kolektiboaren kasuan, adinaren arabera ezarriko da hurrenkera, txikienetik handienera.

Ikasurte honetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eta 17 urtetik gorako eta titulurik ez duten pertsonen **Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak egokituak** jarriko dira martxan.

Ziklo horiek hiru urterako prestakuntza-ibilbidea izango dute.

Esleipena lehentasun-hurrenkeraren arabera egingo da, hurrenkera honetan:

- a. Desgaitasun kognitibo orokorrekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eta/edo zereginen ikaskuntza-geletan matrikulatuta egon direnak.
- b. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan prestakuntzarik egin ez duten ikasleak, baldin eta izena emandako urte naturalean 17 urte edo gehiago badituzte.

Bi kasuetan, hurrenkera adinaren arabera izango da, txikienetik handienera. Kolektibo bateko eskatzaileei ez zaie plazarik esleitu, aurreko kolektiboari dagozkion plazarik gabeko eskaerak dauden bitartean.

Hiru urterako prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak, hezkuntza-premia bereziak dituzten eta talde honetan sartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleentzat.

Esleipena egiteko ezarritako taldeek ondoren adierazten diren letretan duten lehentasun-ordenaren arabera egingo da esleipena. Horrenbestez, ez zaie plazarik esleitu talde bateko eskatzaileei, baldin eta aurreko taldean plazarik esleitu ez zaien eskaerak badaude.

1. Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urte naturalean 16 urte betetzea eta mugako funtzionamendu intelektualaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB), desgaitasun intelektual arina edo egiaztatutako gaixotasun mental bat izatea.
2. Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urte naturalean 15 urte betetzea eta mugako funtzionamendu intelektualaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB), desgaitasun intelektual arina edo egiaztatutako gaixotasun mental bat izatea.
3. Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urtean 16 urte baino gehiago izatea eta mugako funtzionamendu intelektualaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB), desgaitasun intelektual arina edo egiaztatutako gaixotasun mental bat izatea.
4. Sartzeko baldintzak bete arren, mugako funtzionamendu intelektualetik, desgaitasun intelektual arinetik edo egiaztatutako gaixotasun mental batetatik eratorritakoak ez diren bestelako hezkuntza-laguntzarako premia bereziak dituzten ikasleak.

Talde bakoitzaren barruan berdinketarik izanez gero, ausazko prozedura bat baliatuko da, ikasleak onartzeko prozeduran erabilitako aplikazio informatikoak egin.

Hiru urterako prestakuntza-ibilbidea duten Lanbide Heziketako zikloak, 17 urte edo gehiago dituzten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin ez duten pertsonentzat.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin ez duten ikasleak, baldin eta egiaztatzen badute 17 urte edo gehiago dituztela izen-ematearen urte naturalean.
Kasu horretan, lehentasuna adinak zehaztuko du, txikienetik handienera.